

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- Irabazi-asmorik gabeko¹ izeneko elkarte osatu da, elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako otsailaren 12ko 3/1988 Elkartearen Legean ezarritakoan arabera eta Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9 eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Aipatutako elkarteak honako araubidea izango du: Elkartearen Legea, estatutu hauek berak (Legearen aurkakoak ez badira), bere Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakiak (Legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak xedatzen dituen arauak (azken hauek osagarri besterik ez dira izango).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkarte honen helburuak honako hauek dira: ²
.....
.....
.....

Helburu horiek lortzeko honako ekintza hauek eramango dira aurrera, ezarritako legezko baldintzak bete ondoren:

.....
.....
.....

Aurreko idatz-zatian azaldutako jarduerak gorabehera, Elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahaliko ditu:

- Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatzea.
- Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta hitzarmenak egitea.
- Nolanahiko ekintzak burutzea, betiere legeekin eta bere estatutuekin bat etortzekotan.

SOZIJETATE EGOITZA

3. artikulua.- Elkarte honen helbide nagusia honakoa izango da:
.....
.....

Elkarteak, horretaz gain, beste egoitzarik eduki dezake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokor Bereziak horrela erabakiz gero. Elkartearen egoitza nagusia edo elkartearen beste egoitzaren bat tokiz aldatzeko erabakia Zuzendaritza Batzordeak hartuko du, eta horrek Elkartearen Erregistroari helbide berria jakinaraziko dio.

LURRALDE EREMUA

¹ . Elkartearen izendatzeak ezingo du izan elkartearen identitateari, motari edo izaerari buruzko nahastea eragiten duen termino edo espresiorik; bereziki, bestelako pertsona juridikoen (elkarte izaerakoak diren gorabehera) izendapenetako hitz, kontzeptu edo sinbolo, akronimo eta antzekoez ari gara.

Ez dira onartuko legearen aurkako espresioak dituztenak, edota pertsonen oinarrizko eskubideak urratzen dituztenak.

Bestalde, ezingo du izan dagokion erregistroan aldeztatik izena emandako beste elkarteren baten izen bera, edota nahasteko moduko antza duena; halaber, ezingo du izan beste pertsona juridiko edo pribaturen baten, lehendik existitzen diren erakundeen (espainiarrak diren gorabehera) ez eta pertsona fisikoaren izen bera edota nahasmena sortzen duenik izan, interesdunaren edota ondorengoen berriazko baimenik gabe; marka erregistratu ospetsuen izenik edo antzeko izenik ere ezingo du izan, marka horren titularrak eskatzen ez badu, edota haren baimenik ez badu.

Bazkunaren izaera edo helburuak direla eta horren izenean Probintzia baten, Kondaira-Lurralde baten, herri, barruti, eskualde, auzo edo honelako mugarte zehatzen baten izena sartzeari beharrezkoa gerta dadinean, Bazkun hori mugarte berean jadanik egon edo gero sortarazi daitezkeen antzerako besteetatik bereizi dezan berriazko izen bat erabili beharko da, mugarte horren izena inork beretzat hartuz lapurtzea eragozteko.

² . Aldarrikapen orokorrak saihestu behar dira, eta ahalik eta deskribapen zehatzena eman.

4. artikulua.- Elkarte honen ekintzak, honako lurralde-eremu honetan gauzatuko dira nagusiki:³
.....

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAU

5. artikulua.- Elkarte betirako eratzen da. Ohiz kanpoko Batzar Orokor Bereziaren erabaki bidez baino ezingo da desegin, VI. kapituluaren esaten den bezala, edo legeetan jasotako arazoaren batengatik.⁴

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoak izan beharko dira, eta pluraltasuna erabat errespetatu beharko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO ORGANOK⁵

6. artikulua.- Kide anitzeko honako organo hauek izango dira Elkartearen Zuzendaritza eta administrazioaren arduradunak:⁶

- Bazkideen Batzar Orokorra, organo goren gisa.
- Zuzendaritza Batzordea, kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Orokorraren bidez adieraziko dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren eskumenak:

- a) Elkartearen jarduerako plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo urteko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Zuzendaritza Batzordeko kideak hautatzea.
- e) Kuota arruntak nahiz aparteko kuotak ezartzea.⁷
- f) Estatutuak aldatzea.
- g) Elkarte desegitea.
- h) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietako batzuk uztea.
- i) Ondasunak xedatu edo besterentzea.
- j) Ordezkaritza organoetako kideen ordainsariak adostea, hala dagokionean.
- k) Beste sozietate-organoren bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohizko bilerak eta bilera bereziak egingo ditu.

9. artikulua.- Ohizko bilera egiteko deia gutxienez urtean behin egin beharko da: hiru hilekoan izango da, 7. artikuluko a) b) eta c) letretan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitakoan bilduko da bilkura berezian, bere kabuz edota bazkideen %.....(e)k eskatuta (ehuneko horrek ezin

³ Ezin dira Euskal Autonomia Erkidegoaren mugak gainditu.

⁴ Elkartearen iraupena denbora mugaturako bada, estatutuetan adierazi beharko da iraupena.

⁵ Eredu honetan gobernu- eta administrazio-organok arautzeko jasotzen den ereduaz bestelakoa ezarri ahalko da Elkartearen estatutuetan, betiere legearen aurkakoa ez bada, eta demokratiko eta plurala bada.

⁶ Elkarteak kide anitzeko beste organo batzuk ezarri ditzake (exekutiboak, kontsultiboak edo lan-batzordeak). Horretarako, haien eskuduntzak zehaztu beharko ditu estatutu hauetan.

⁷ Batzorde Orokorrak Zuzendaritza Batzordeari eskuorde diezaioke eskumen hori, berariazko erabakiaren bidez.

⁸ Elkarteak beste eskuduntza batzuk eman diezazkioke Batzar Orokorrari. Horretarako zehazki aipatu behar ditu, edota hondar-klausula baten bidez sartu, honakoaren antzerakoa: "Batzar Orokorrari dagozkio estatutu hauetan Zuzendaritza Batzordeari espresuki ematen ez zaizkion eskuduntzak".

du izan % 10 baino baxuagoa). Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dituzte. Dena den, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilera egin beharko da:

- a) Estatutuak aldatzea.
- b) Elkartea desegitea.

11. artikulua.- Batzar Orokorrarako deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilerak egingo diren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik lehenengo deialdiko batzarra egiteko jarritako egunera bitartean gutxienez hamabost egun izan beharko dira. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua adieraz daitezke; dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordubeteko tarte utzi behar da.

Batzar Orokorrak, nahiz ohikoak nahiz ohizkanpokoak, lehenengo deialdian balioz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak bertaratuen nahiz ordezkatuak gehiengo simplez hartuko dira, baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Hala ere, bertaratuen edo ordezkatuak gehiengo kualifikatua (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago badira) beharko dute elkartea desegiteari, estatutuen aldaketei, ondasunen antolamenduari edo besterentzei eta ordezkaritza-organoko kideen ordainketei buruzko erabakiek.⁹

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren gain utzi dezakete beraien ordezkotza Batzar Orokorratan parte hartzeko. Ordezkatza hori, idatziz egin beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino ordu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek ordezkotza beste baten esku uzteko adierazten duen agiria postaz bidali dezakete.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatuak dituen organoa da, Batzar Orokorraren xedapen eta arteztarauei jarraikiz. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea honako hauek osatuko dute¹⁰ :

.....
.....
.....
.....
.....

Gutxienezbildu beharko dute, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den hainbat alditan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara aldiz jarraian, edo, aldizka, aldiz ez bada joaten, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak, eta urterako izango dira Batzordeak berariaz ezeztatu ezean, eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

⁹ Elkartek berak ezar ditzake erabakiak hartzeko beharko diren quorumak eta gehiengoak. Baina kontuan hartu behar da legeak gutxieneko quorum bat ezartzen duela desegite-kasuetarako (batzarrean daudenen gehiengo absolutuaren aldeko botoa, gutxienez). Gainera, estatutuak aldatzeko, ohikoa da gehiengo berezi baten beharra ezartzea –bertaratuen gehiengo absolutua, eskuarki–.

¹⁰ Zuzendaritza Batzordea zein karguk osatuko duten jarri beharko da zehazki. Kasu guztietan elkartek gutxienez presidentea, idazkaria eta diruzaina izan beharko ditu. Gainera, beste kargu batzuk ere izan daitezke (presidenteordea, bokalak, eta abar), elkartearen beharren arabera.

Edozein kasutan, bateraezinak dira presidente eta presidenteorde karguak idazkari eta diruzain karguekin, eta beraz, ezin dituzte pertsona bereberak kargu horiek hartu.

Zuzendaritza Batzordean batzordekideak badaude, haien kopurua zehaztu beharko da; gutxieneko kopurua eta gehieneko ezarri ahalgo dira.

- Kargu horiek berrituko dira¹¹.
17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordekide izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:
- a) Adinduna izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean den legedian ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
 - b) Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea.
 - c) Elkarteko bazkide izatea.¹²
18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordekide kargua, Batzar Orokorrak izendatu ostean, onartutakoan edo jabetzerakoan hartuko da¹³.
- Dena den, Batzar Orokorrak egun-sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake¹⁴.
19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:
- a) Agintealdia bukatzen denean.
 - b) Dimititzen dutenean¹⁵.
 - c) Bazkide izateari uzten dionean, edo kargurako ezintasun-arrazoiak dituenean.
 - d) Batzar Orokorrak kargugabetzea erabakiz gero, estatutu hauetako 16. artikuluan jarritakoaren arabera.
 - e) Heriotza.
- “a)” puntuan agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoia, Zuzendaritza Batzordeko kideek jarduneko egoeran jarraitu beharko dute lehenengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.
- b), c), d) eta e) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoia, Zuzendaritza Batzordeak berak hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ezestea. Ezesten bada, dagozkien izendapena egingo da.
- Batzorde honen osaeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.
20. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen funtzioak:
- a) Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.
 - b) Elkarrekin aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
 - c) Gastu eta sarreraren arteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari, onar ditzan, aurkeztea.
 - d) Batzar Orokorraren bileretako aztergai-zerrenda egitea, eta Batzar Orokorrak berezi zein ohikoen deialdiak erabakitzea.
 - e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta dagozkien neurriak hartzea.
 - f) Estatutu hauetan jasotzen diren aginduak interpretatzea eta haietako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean diren legeei jarraikiz.
 - g) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira bere eskumen eskusibokoak.

¹¹ Berrikuntza osoa edo zatikakoa egin daiteke, nahiz eta azken hori gomendagarriagoa den, elkartearen jarraipenerako egokiagoa delako. Zatikakoa berrikuntza egiten bada, artikulua hau modu honetan idatziko litzateke: “Lehen aldi batean kideen % 50 berrituko da (kargu zehatzak ere aipatu daitezke). Bigarrenean, gainerakoak”.

¹² Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, bazkide gisa antzinatean jakin bat izatea eskatu ahal izango da.

¹³ Elkarrekin ezar dezake kargua borondatez ala nahitaez hartu behar den. Bigarren kasuan, hautetsiak kargua nahi izan ezean, aukera bi ditu: onartzea edo elkartekide izateari uztea.

¹⁴ Zuzendaritza Batzordeko kideek karguaren arabera ordainsariak jasotzen badituzte, aukera hori estatutuaren adierazi beharko da. Era berean, kargu horien ordainsariak batzarrean onartutako urteko kontuetan sartu beharko dira.

Horren harira, esan dezagun hurrengo hau dela elkarrekin bat onura publikokotzat aitortzeko behar den baldintzetako bat: ordezkari-organotako kideek ordainsariak jasotzekotan, ezin dira dirulaguntza edo funts publikoen kargurakoak izan. Hala ere, estatutuaren azaldutakoari jarraikiz, ordezkari-organotako kide gisa dagozkien funtzioen bestelakoengatik, dagozkien ordainsariak jaso ahalko dituzte.

¹⁵ Kargua beharrezkoa dela ezartzen ez den guztietan.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak, presidenteak eta, hala badagokio, presidenteordeak erabakitako bakoitzean egingo ditu bilerak, euren kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bileraren buru presidentea izango da, edo, bertan ez balego, presidenteordea. Biak falta badira, berriz, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du Batzarrean.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu. Agiri horiek dagokien liburuan jasoko dira idatziz.

PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

PRESIDENTEA

22. artikulua.- Presidenteak elkartearen legezko ordezkaritza hartzen du. Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean, aipaturiko bi sail horien presidente izango da.

23. artikulua.- Presidenteari egokituak zaizkio hurrengo ahalmenak:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egitea; bilerak bukatutzat ematea; bileretan sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta boto-berdinketa gertatuz gero, boto ebazleaz erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, eta aldi berean, elkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Balioz erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortu daitezkeen premiazko arazoak konpontzea, eta Zuzendaritza Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

PRESIDENTEORDEA

24. artikulua.- Presidenteordeak¹⁶ presidenteari lagunduko dio, eta, presidenteak aldi baterako ezintasuna daukanean, ordezkatu egingo du. Era berean, presidenteak berariaz emandako ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartearen sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkartearen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezkeen arduratuko da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuen eta agirien edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordearen hautaketari eta elkartearen egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinerazpenak dagokion agintaritzarengana bideratuz.

DIRUZAINA

26. artikulua.- Egindako sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Guzti horiek Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta honek Batzar Orokorrari, onartu ditzan.¹⁷

18

¹⁶ Kargu hori ezinbestekoa ez bada ere, komenigarria da arautzea, presidentea aldi batez ez dagoenean, edo ezindua dagoenean, elkartearen aktibitatea ez gelditzeko.

¹⁷ Elkarteak bokal kontularirik izango balu, horri legokioke kontu-liburuaz arduratzea eta kitapenak eta aurrekontuak prestatzea. Kontularirik ez balu, lan horiek diruzainak egin litzake, estatutuaren jasotakoaren arabera.

¹⁸ Aurrez aipatu karguez gainera, Elkarteak beste batzuk ere ezar ditzake: libruzaina, argitalpen-arduraduna, zuzendari-kudeatzailea, eta abar.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARPEN BIDEAK, BALDINTZAK ETA MAILAK

27. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta honako baldintza¹⁹ hauek betetzen dituzten guztiek²⁰ izan daitezke
Elkarteko bazkide
28. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea. Idatzi hori bi bazkidek izenpetuko dute eta presidenteari zuzenduko zaio. Presidenteak horren berri Zuzendaritza Batzordeari emango dio, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Dena den, gorako errekurtoa jarri ahal izango da Batzar Orokorraren aurrean²².
29. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiz, elkarteak Ohorezko Bazkide izendatu ahal izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren elkartearen helburuak betetzeko bertaratu ezin diren pertsonak. Bazkide horiek ohorezkoak dira soilik²³, eta beraz, ez dira legezko bazkide, ez dute elkarteko zuzendaritza eta administrazioko gobernu-organoetan parte hartzeko eskubiderik, ez eta inongo betebeharririk²⁴ ere.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Elkartekide guztiek honako eskubide hauek dituzte:
- 1) Elkarteei buruzko Legearen edo estatutuen kontrako erabaki eta jarduteak inpugnatzea, aurkatutako erabakiaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera izan duen egunetik hasi eta 40 egun naturaleko epean.
 - 2) Elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, elkartearen kontu-egoerari eta haren jardueri buruzko informazioa jasotzea.
 - 3) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri uneoro jakitea.
 - 4) Batzar orokorretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.

¹⁹ Pertsona fisikoak edo era guztietako pertsona juridikoak izan daitezke, publikoak zein pribatuak. Pertsona fisikoek kasuan, adindunak izan beharko dute, edota adingabe emantzipatuak; hamalau urtetik gorako adingabe emantzipatugabeak izanez gero, beren gaitasuna ordeztu behar duten pertsonen baimen idatzia beharko dute.

²⁰ Bazkideak pertsona fisikoak badira, beti bete beharrekoa da honakoa: adinduna izatea, edo adingabe emantzipatua, eta eskubidea gauzatzeko inolako lege-baldintzarik ez izatea.

Hamalau urtetik gorako adingabe emantzipatugabeak bazkide izan ahalko dira beren gaitasuna ordezkatu behar duten pertsonen baimen idatziarekin. Bazkide horiek ez dute zuzendaritza organoetan parte hartuko, adindunak diren arte.

Bazkideak pertsona juridikoak badira, beren organo eskudunaren berariazko erabakia beharko dute; erakundeek, aldiz, beren organo zuzentzailearena beharko dute. Elkartea osatzeko nahia adierazi beharko da horietan, bai eta beren izenean jarduten dutenen izena ere.

²¹ Elkarte bakoitzak bere kasa jarri ahal izango ditu bazkide izateko baldintzak, adin-nagusitasuna eta jarduteko gaitasunarena izan ezik, horiek legeak eskatzen ditu eta.

²² Bazkidetza ez da lortuko harik eta sarrera-kuota Zuzendaritza Batzordeak ezarritako zenbatekoan eta eran ordaindu arte, halakorik baldin badago. Abalaren eta idatzizko eskabidearen eskakizunak kendu daitezke.

²³ Bazkide horiek "ohorezko" direlakoak dira. Zientzia, ikasketa eta ikerketarako elkarteetakoak izan ohi dira.

²⁴ Horretaz gain, elkartean beste zenbait bazkide-mota ere bereiz daitezke. Honako hauek dira elkarte-jardunean ohikoak:

- a) botoa emateko eta hitz egiteko eskubidea izan dezaketen arren, ezin izango dute zuzendaritzako kargurik hartu.
- b) Sortzaileak (eratzte-agiria izenpetu zutenak). Horren ondorioak, efektiboak barik, ohorezkoak dira.
- c) Bazkide osoak eta arruntak. Kopuru mugatukoak diren bazkideak besteetatik bereizteko. Bereizketa hau askoan egiten da ikerketarako elkarteetan.
- d) Ohorezkoak. (29. artikuluan azalduta).
- e) Babesleak. Elkarteari diru-laguntza ematen diotenak (dohaintza-emaileak). Bestelako partaidetzarik ez dute izaten.

Bazkide gazteak. 14 urte baino gehiago izan behar dituzte. Elkartean sartzeko, lege-ordezkarien baimena behar dute eta, batzar orokorretan

- 5) Elkarteko estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautagai nahiz hautesle izatekoa.
- 6) Indarrean diren legeetan zehaztutako bazkide-zerrendan agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzea, eta bazkideen erabilerako gauzak erabiltzea (liburutegiak, elkartearen egoitza, eta abar). Zuzendaritza Batzordeak, kasuan kasu, erabakitako moduan.
- 9) Zigortze-neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adierazitakoa kontutan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruz azalpenak jasotzea. Neurri horiek hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarritu daitezke soilik.
- 10) ²⁵.

31. artikulua.- Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Elkartearen helburuak gauzatzeko lankidetzak aktiboak ematea.
- b)-k⁷ ezarritako bazkide-sariak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea, gastuak ordaintzeko.
- c) Estatutu hauek eta elkartearen zuzendaritza-organoek balioz hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.

ZIGOR-ARAUAK

32. artikulua.- Estatutuak edo Batzar Orokorrek nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik elkartetik betirako egozterainokoa izan daiteke zigorra, betiere 34. artikulutik eta 37.a bitartekoetan jasotakoaren arabera.

Ondorio horietarako, presidenteak zigorgarri izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egiteko erabakia hartu ahal izango du. Ikerketa horiek Idazkaritzak eramango ditu aurrera, eta Zuzendaritza Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko dio. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik interesatuak adierazitakoa kontutan hartu beharko da.

Erabaki horren arrazoiak emango dira beti, eta haren aurkako errekurtsioa jarri ahal izango da Batzar Orokorren aurrean, 30.1 artikuluan zehaztutako ekintzen kalterik gabe.

BAZKIDETZA GALTZEA

33. artikulua.- Bazkidetza honako kasu hauetan galduko da:

1. Heriotza (edo desegitea, pertsona juridikoen kasuan).
2. Bazkidea nahita aldentzea²⁶.
3. Zuzendaritza Batzordeak erabakitako zigorra dela eta, honako kasu hauetan: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrek eta Zuzendaritza Batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea behin eta berriro.

²⁵ Eskubideei dagokienez, adierazi beharra dago bazkideren batek, berak nahi duelako utzi baldin badu elkarte, eta lehen egindako ekarpenengatik ondarean partaidetza badu, estatutuetan hala jasota egonez gero, hori jasotzeko eskubidea izango duela, betiere kuota arruntez bestelakoez ari garela.

²⁶ Kasu horretan, dagokion ondare-partaidetzaren kitapenerako eskubidea ezarri ahal izango da estatutu bidez. Kitapen horretarako kontuan hartuko dira emandako diru-kopuruak –baina ohizko kuota-bidezkoak ez–; gainera, ondare-urritzea ezin da inoren kalterako izan.

Estatutu-klausula hori ezarri ezean, elkarte nahita utzi duen bazkideak ezingo du eskatu elkarteko ondaretik berari dagokion zatia, elkarteari egindako ekarpenak ondare-besterentze baitira, eta ez mailegu soil.

Normalean ez da baja eskatzeko modu berezirik ezartzen, askatasun-printzipioa nagusi baita. Dena den, eta frogabide gisa, komeni da eskaera idatziz egitea eta hartu izanaren adierazpena eskatzea. Hala ere, ez dago horri erantzun beharrik, alde bakarreko egintza denez beste ezer gabe duelako eragina.

Aldi baterako baja: elkarte uztea, baina berriz sartzeko eskubidea izatea: estatutuek egoera hori ere aurreikus dezakete.

34. artikulua.- Bazkideren bat 33.3. artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinetan bada, presidenteak agindu diezaioke idazkariari, gertaeren berri izatearren, aurretiazko eginbide batzuk egin ditzan. Eginbide horiek ikusita, presidenteak ekintza bertan behera uztea edo edota zigor-espeditentari hasiera ematea erabaki dezake
35. artikulua.- 33.3. artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinengatik zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, egintzak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio dagokionari, leporatzen zaizkion salaketen berri emateko. Salaketa horiei erantzuteko, bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordeko lehenengo bilkurara eramango da kasua, eta bertan hartuko da erabaki egokia. Horretarako Batzarkideetatik-.....ko quoruma behar izango da²⁷.
- Elkartetik kanporatzeko erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo Batzar Orokorrari Berezian errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Batzar horretarako deirik ez bada egiten hiru hilabeteren barruan, errekurtsio hori nahikoa izango da batzarra egiteko. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak dagokionari bazkide-eskubideak kentzea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.
- Kanporatzeko espeditentea Batzar Orokorrari aurkeztuz gero, idazkariak espeditentearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesatuak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.
36. artikulua.- Kanporatze-erabakia –betiere arrazoiak emanda–, dagokionari jakinaraziko zaio eta horrek, eskubideaz baliatuz, auzitegi-tarara jo ahal izango du; bere ustez, erabakia legearen edo estatutuen aurkakoa dela jotzen badu.
37. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan –berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako– bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. artikulua.- Elkartearen sortze-ondarea eurokoa da.²⁸
39. artikulua.- Elkartek, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- a) Zuzendaritza Batzordeak ezarritako sarrera-kuotak.
 - b) Zuzendaritza Batzordeak erabakitako aldizkako kuotak.
 - c) Elkartek dauzkan ondasun eta eskubideetatik ateratzen dituen ekoizpenak. Baita legez jaso ditzakeen diru-laguntzak, ondareak eta dohaintzak ere.
 - d) Estatutuen helburuak kontutan harturik, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako ekintza bidezkoek dakartzaten irabaziak, betiere estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.
- Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko(a)ren(a)n itxiko da.
- Elkartek, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuta, lortzen dituen irabaziak haren helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideekin edota haiekin antzeko afektibitate-erlazioan bizi diren pertsonekin ere, ez eta haien senideekin ere. Ezingo zaizkio, halaber, mozkina irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

40. artikulua.- Estatutuen aldaketa bazkideen Batzar Orokorrean erabaki behar da, bai bere ekimenez, bai bazkideen %.....k eskatuta; Batzar Orokorrak xede horrekin deitua

²⁷ Erdiak baino bat gehiago, edota 2/3 ezarri daiteke.

²⁸ Baliteke elkartek sortze-ondarerik ez izatea. Kasu horretan hori adierazi.

izan behar du. Dena den, bi kasuetan Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta Batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidentek hurrengo Zuzendaritza Batzordearen aztergai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu, edo, berriz ere, lantaldeari itzuliko dio, atzera ere aztertzeko.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Batzar Orokorraren Bereziazen aztergai-zerrendan sartzea erabakiko du, edo horretarako propio egingo du Batzar Orokorrerako deia.

42. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, estatutuen aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamenen hori Batzar Orokorrari emango zaio, betiere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira, eta beste testu-aukera bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak estatutuak aldatzeko Erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistroan sartzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

43. artikulua.- Elkartearen desegingo da:

1. Honako arrazoiengatik:
2. Bazkideek nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako Batzar Orokorraren azaldu beharko da, eta bertan dauden gehiengoaren botoak jaso beharko ditu.
3. Kode Zibileko 39. kapituluaren azaltzen diren arrazoiengatik.
4. Epai judizial bidez.

44. artikulua.- Elkartearen deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak Kitapen-Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besterekiko elkarrearen zorrak ordaindu ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, honako hauei emango zaie²⁹
.....
.....

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eratze-agirian behin-behineko izendatuak agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egingo den lehenengo Batzar Orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du. Horrek inolaz ere ez ditu estatutuetako aginduak aldatuko.

²⁹ Soberan gelditzen den elkarte-ondarea ezin izango da inola ere bazkideen artean banatu. Soberakinak ezingo du aldatu elkarteak mozkinik ez irazteko duen izaera. Oro har, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati emango zaiola ezartzen da.

Elkartearen desegiten denean, elkartekideek elkarrearen nahita uzten dutenerako aurreikusitakoa aplikatu ahal da. Estatutuetan honakoa ezarri ahal da: elkartekide batek elkarrearen nahita uzten badu edota elkarrearen desegiten bada, elkartekideek hasierako ondare-partaidetza edota beste ekarpen ekonomiko batzuk (elkartekide izateko ordaindutako kuotak izan ezik) jaso ahal dituztela, estatutuetan ezarritako baldintza, irismen eta mugekin. Ondare-murrizketak hirugarrenentzako kalterik ez dakarrenean egingo da hori. Kasu horretan, elkartekideei ekarpen horiek eman ostean, soberakinaren xedeak ezingo du aldatu elkartearen duen mozkinik ez irabazteko izaera.

